

VATICANO KONZILIO ITGARRENA,
20 URTE GEROAGO

Joan dan urteko azilla ta abendu bitartean, Vaticano Konzilio II garrena amaitu zala 20 urte igaro dirala ta, sinodo berezia izan da Erroma'n. Batzar orretan eta aldizkarietan, eta beste komunika-bideetan be bai, batzar nagusi ari buruzko eritzi desbardinak azaldu izan dira. Batzarrari buruz eta batzar aren ogei urteotako ondorioai buruz. Idazki onetan ez da nire asmua eritzi ezbardinok biltzea; entzun ta irakurritakoak be gogoan arturik, geure eritzia emongo dogu.

1. Lorpeflak

Jakina da Konzilioaren oinarritzko agiriak *Lumen Gentium* (Gizakien Argia) eta *Gaudium eta spes* (Poza ta itxaropena) dirana. Lenengoan oreka barria lortzen da Eleizea ulertzean; ekilibrio barri onetan aparteko garrantzia dauke Eleizea Jaungoikoaren Erri lez ulertzeak eta obispoak Aita Santuagaz batera alkarkide ta ardurakide agertzeak (collegialitas). Baina oindino garrantzitsua go da (eta orretarako da agiri osoa) Eleizea batez be salbamen irudi lez agertzea. Bigarren agirian mundua, gizadia, barrutik eta Jainko-ikuspegitik ulertzen aalegindu da, bere balorak onartuz, bearrianak ikertuz eta munduagaz daukan serbitzu konpromisoa autortuz. Agiri biok efatzen daben ardatzaren inguruan jar ten dira beste agiriak, areen edatze lez. Oneen artean aparteko

garrantzia dauke, Eleizeak bere izateaz lortu dauan kontzien-tziagaitik, *Unitatis redintegratio* (katoliku ez diran kristinaui buruzkoa) eta *Dignitatis humanae* agiriak (erleginoko askatasunari buruzkoa). Liturgi barriztatzeak, esate baterako, (edo antzeko agiriko barriztatzeak) ikusgarriagoak dirudie. Baina, barriro labur esateko, Konzilioaren benetako ta azken balioa em en ikusten dot: Eleizeak berari begira eta munduari begira izan dauan *baikortasunean*, *jatortasunean* eta *konpromisoan*. Au izan zan Konzilio aren espiritua eta espiritu au izan zan agiri guztien eta geroko erabagi eta Elizmobimentuaren bultzagillea.



Konzilioaren eragina era bitara jazo zan: zuzen eta zearka. Zuzenean, Konzilioaren beraren dotrina-agiri eta erabagien bidez edo berc agindu ta asmuak beteteko geroago ofizialki artu izan diran erabagi zeatzagoen bidez. Baina, gero, duda barik zearka be bai: Konzilio barman edo inguruan sortu ziran eztabaidak, orduan bearbada berealako ondoriorik izan ez **arren**, gero be euren eragina izan dabe; eta batez be esandako Konzilioaren «espiritu» arek (Eleizearen beraren espiritua zanez) aurrera jarraitu dau Ebangelioaren eta munduaren arteko arazoak ikertzen eta argia billatzeri. Jakifia, baikortasuna, jatortasuna "eta konpromisoa ez dira inon Konzilioaren izatetzat agertzen, baina or dago benetan bere gogoia ta bizi-sustraia. Baiezkor, munduko zoritxar itxasoan gizabalora batzuen aurrerapena edo aztarnak ikusteko; baiezkor, Ebangelioaren berba salbatzaillea entzunazoteko. Jatortasuna, gaurko munduaren abotsa, jaungoiko-graziaren zain, entzutean; eta

gra'ziaren Ebangelio-asniak istori aldakorraren azpian zintzo bi-
llatzeko. Konpromisoa, munduaren pozak eta saminak beretzat
sentiduz, salbamen osoa sortzen aalegindu bearra autortu. daua-
lako.

Konzilioak alderdi baikorrak larregi azpimarratu ebazala
esan da, eta gitxiegi krutzea. Baliteke. JViunduak porrot egitea-
ren misterioa (eta, munduan eta munduagaz batera Elizeak be-
rak be bai, alderdi askotan); beste alderdi batetik, krutzearen
bearrizana azken benetako jainko-askatasuna lortzeko; krutzean
dagoan anaiagaz parte artu bearra. Baina, nire ustez, Konzilioak
burutu ez eban beste au da batez be mingarria: «irugarren mun-
duko» zoritxarrekoen alde.kristaudiaren kontzientzia zutunik ez
jartea. Ez dim falta aipamenak. Baina, esate baterako, Paulo VI
garrenaren *Populorum Progressio* (1967) agiriak askoz gogorrago
egin eban berba, eta Medellin'go agiriak (1968). Gero, urte ba-
tzuk garrenean «askapen teologiak» gai bearrezkotzat artu daua-
na Konzilioak egin bearrekoa zan. Eta ezin lei esan emen au es-
kakizun antiistorikoa danik. Baegoan ordurako gizadiaren eta
Eleizaren kontzientzian eginkizun orretarako gaiak. Baina emen
be ikusten da (emen batez be) Konzilioa geien baten Europa'ko
eta Sartaldeko ikuspegitik egina izan zala. Onen ondoren beste
azterkuntza batzuk egin izatea eta erabagiak artzea gura izango
geunke guk gaur. Baina emen ezin lei estutu. Bearbada antiisto-
rikoa litzake. Ez egoan orduan bearbada ziurtasun naikorik.

Konzilioaren lorpenik garrantzitsuenak aipatu doguz. Alar
be, Konzilioa ez zan izan, zeatz gauzak esateko, sortzaillea, krea-
tzaillea. Konzilioak onartu ebazan ideak leenagotik etozan, be-
rezko danez. Konzilioan izan eben oiartzunak ez dau aaztuazo
bear asikera pentsalari eta pastoralgintzan sartuta ebiltzanai zor
izan jakezala. Oraingo sinodoan, Konzilioa goraltzean, Espiritu
Santuaren eraginez burutu zala autortu izan da. Onegaz Konzi-
lioaren autoridadea eta balioa bieztu gura dira zalantza barik, eta
onartzekoa da. Baina, istori barruan, ez da arinegi aipatu bear Es-
piritu Santua, geure ondoko edo aurreko kristinauak egindakoa
aaztuta: Espiritu Santuak ain zuzen be kristau artzain eta pentsa-
larien biotz eta gogoetan izan dau eragina eta euren berbea, au-

sardia eta ekintza sortu ebazan. Konzilioa bera be, zati andi baton, aurreko lanaren frutua izan zan.

Konzilioak batez be onartu egin ebazan aurreko pentsabide eta ekintzabideok. Onartu, jakina, berari dagokion erantzukizun eta ardurez. Orrela bere berarizko autoridadea ta itzala emon eutsen, eta Eleiz guztira zabaldu. Bereak egiteak eta zabalkuntza unibersal onek sortu eban Eleizan (Konzilioagandik asita) baikortasuna eta billatze-gogo zintzo ta zabala eta konpromisobearra. Emen dago Konzilioaren meritua, eta ez da txikia. Ideak ez ziran bereak, baifia berak emon eutsen autoridadea, unibersaltasuna, berak sortu eban Eleizan gogo baiezkor, jator, billatzaillea.

2. Ondoifio osiganriak

Konzilioaren ondorio ongarrien artean, ogei urte oneetan, urrengoak aipatu leikez.

- Teologiaren eta, orokorrago, katoliku pentsamentuaren askatasun eta zabaltasun andiagoa, berba ta formulen atzetik errealidadea, asikerako nukleoa eta gaurko benetako zentzuna billatzean. Istorikotasunak eta erlatibitateak eragina dabe pentsamentu onetan, eta era onetan goi-agerkundearen «dato» tinkoagaz bat egitea beti be gatxago ta arriskutsuagoa da. Aurreko pentsamentu estatikua seguruagoa zan, baina ez orregaitik egia-
goa, eta ez biziagoa.

- Ebangelizatzean, sakramentuetan eta pastoral ekintza guztian bide barriak asmatzeko aalegina, erriagan kristau bizitzea sortu ta sendotzeko.

- Laikoen eliz-kontzientzia eta konpromisoa geroago ta andiagoa, liturgian, sozial-ekintzan eta pastoral-ekintza guztian.

- Txiro eta edozetariko baztertuen aldeko kontzientzi zabalagoa. Onetan, politika estrukturak dauken garrantzia. Kristau laikoai euren arlo-erabagietan dagokien askatasuna. Eta elizgizonak politika eta beste gizarte indarren aurrean bear dauan askatasuna, eta zuzentasunaren aldeko profeta eginkizuna.

- Munguaganako arrera zabalagoa, here alderdi onak ikusiz. Emen aipatu geinke kristau ez diran erligioezko pentsakera positiboagoa. Giza-ezkubideen aide jokatzen dabenakaz baterako ekmtza ta alkartasuna, erleginoz eta ideologiz urrunekoak izan arren. Bakearen alderako lana.

- Katoliku ez diran beste kristau Eleizakaz artuemon erre-zagoak, alkartasuna oidino bearbada urrun izan arren.

- Obispo, abade eta erligiosoen arteko erlazioak, anaikorrangoak; eta oneen izakerea eta bizikerea erriagandik urrangoak.

Emen jarritako oarrok ez dabe ezelan be ogei urte oneetan izan dan aldaketa emoten. Ez dira aldaketa onen deskrizinorik. Baina aldi bien esperientzia izan dauanarentzat argiago konturat-zeko balio dabe. JVlobimentu orretan s'artuta, badago gaurko egoerea berezkitzat artzeko eta nondik gatozen aaztuteko arriskua.

Leengoa ta oraingoa kontrajarriaz, ez da esan gura oraingo personak obeak eso adimentsuagoak diranik. Jakina ezetz. Gure aldiari doai au tokau jako beste izakera neketsu askogaz batera. Eta dana dala, alderdi positibo oneek ez dira millegrozko soluziobide errezak gaurko arazoan artean, geroago esango dogun lez. Eta barnro be gogoan artzekoa: ez ditu Konzilioak eze-rezetik asmatu eta sortu. Idea eta ekintzok aurretik be baegozan geien baten. Baina Konzilio ostean aparteko autoridadea eta unibersaltasuna artu dabe. Unibersaltasun errelatiboa, jakina; baina leen baino askoz zabalagoa beintzat.

3, Fenomeno kaltegarriak

Konzilio ostean, baina, izan dira Eleizan fenomeno negatiboak, kaltegarritzat daukaguzan jazokunak, beintzat gure adimenak orain ikusi daiken einen.

- Urteen buruan baikortasuna jausi egin da. Ezezko jazokunen artean auxe dala esan lei orokorrena. Gaurko munduari Eleizeak iragarri bear eutson barri ona, osasuna, ez da agiri izan

ain eragmkor: mundua ia enterau be ez da egin, eta azaletik ezer cntzun dabenak indiferentzian eta materialismoan jarraitzen dabe. Miseria, gerra, guda-iskillu barriak asmatzea bardin doaz aurrera. Beste kristau Eleizakaz osotu bearreko alkartasuna ez dala ain erreza eta beingokoa agertu da.

- Radikalismo, larregikeria, eta kritika apurtzaillea nagusitu dira nozik bein leku batzuetan; alderdi bietatik: batzuk ez dabe onartu oindino Konzilioa, Eleizaren eta Ebangelioaren izatea istorian zear sortutako zeaztasunakaz bardinduz. Beste batzuk Eleizaren aalmena baztertuz fede-asmatzaile biurtu dira. Alan be, larregikeri au ez da Eleizan ain jazoera zabalik.

- Dogman eta moral gai batzuetan noraeza eta naastea. Batez be moral-gaietan era bitako morala: bata Eleiza ofizialarena eta bestea erriarena, edo erri-zati batena. Arazo benetan larria.

- Batez be urteren batzuetan, abade, erligioso eta erligiosak, kopuru aundietan, euren bidea istea.

- Europa'n bokazifioak urritzea.

- Oindino aipatu leike bearbada momentu batzuetako orizontalismoa. Baifia onek eta gogoratu leikezan beste jazoera batzuk ez dabe ain zabalera eta eragin aundirik.

Alderdi negatibo oneck ez dira berez Konzilioaren ondorioak. Jakifia, esentzi, barru-zentzuna eta askatasunaren bidea artu ezkerro, badago arriskua aipatutako ondorio negatiboak sortzeko be. Au olan da beti giza-istorian, egitez. Baifia Konzilio ostean ler egin daben arazoak leenagotik etozan. Leenago edo geroago eztanda egin bear eben. Konzilioa bera eta Konzilio-ostea istori mobimentu aundiagoaren barruan doaz. Mobimentu orretan joan dira sortzen alderdi positiboak eta negatiboak. Konzilioak lenengoai emon dautse bere autoridadea eta unibersaltasuna. Bigarrenak be eztanda egin dabe askatasun eta esentzi-ra-bide giro orretan. Baliteke giro orrek arazoren batzuen eztanda aurreratzea. Baifia, dana dala, arazoak or egozan eta noz edo noz aurea emon bearra egoan. Eleizearen ate ta leioak itxirik ez ziran konponduko. Gaurko izakera istoriko guztiak sor-

tzen dituan arazoak dira, gaurko adimenak, sentikerak eta esperientziak. Orregaitik ospatu zan Konzilioa: gaurko Eleizearen kontzientziak eskatuta. Baina Konzilio *au* ez zan asikeratik eta bapatean sortu: lenengo batzalditik laugarrenera bide sakon zabala egin eban gaurko Eleiz-kontzientzia lortzen, izan dan Konzilioa izaten.

4= Azkem gogoketa,,

Istoriaren. krutzea aurkitu dogu barriro be Konzilio onen ondoren. Bere inguruan sortu zan itxaropena eta entusiasmu baikorra, konturatu barik, errezegia izan zan bearbada. Ondorioak errezegi, millegro antzera, ernongo jakuzalakoaren itxaropena. Mundu onetan izan be itxaropena errealdadea baino ederragoa izaten da geien bat. Ez dogu orregaitik zapuztu ta ukatzen itxaropen a. Baina orain barriro be neurriz, sobriedadez, eta «fede-utsez» aurrera egiteko ordua dogu. Onetan diardu Eleizeak, edo beintzat Eleizako fededun askok.

Konzilio ostean, urte gitxitara, beste Konzilio barri bat bear zala esan eben batzuk, arek itzitako arazoak aztertu ta erabagiteko. Baina Konzilioak, euren persona, diru ta edozetariko indar-gastuz ezin leitekez Eleiz-gobernu bide normala izan. Konzilioari eskatuko litzakiozan ondorio ongarriak beste era batera lortzeko bideak be asmatu leikez; esate baterako, obispo-konferentzien eritziak alkartuz edo Erromako sinodoak indartuz.

Baina leengo Konziliora bakar-bakarrik .biurtzen diranak be ez dagoz egi osoan (ganera, Konzilioa ez da oindino sakon ezagutu eta norberaganatua izan). Konzilioa ez da eliz-istorian amaia. Au Konzilioaren beraren esperientzitik ikasi bear litzaken egia da. Arazo barriak sortzen dira, eta orain inoz baino arinago. Leen egozan guztiak be ez ziran argitu eta erabagi. Konzilioaren espirituak eskatzen dau ain zuzen be aldian aldiango arazoai aurre emotea.

Luis Aristegi